GARILLA
19
Igandea
Bilbao, 1936

# Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... ... 9,00 ifko. iru lleg
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzefijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.352 zenbakija

# Gayak

IDRA'REN ZIGORA

Idra inditaren jaungo-ixuna da. Eta asafatuten danian, inditarak uste dabenentz, asaria sortu-azo dautsanaren bizkara zigorez zigortuten ei-dau.

Eta atita zar batek, bere ilobatxubak ipuin-eske juan yakazan egun baten, inditaren ipuin au edestu eutsen.

—Antxiña - antxiña— asi yaken— India'ko eri baten, "raja" ixenaz ezagututen diran ofetako inditaren bakalduntxu bat bixi ixan zan. Aberatsa zan: urtiakaz aberatsa, lelokerijakaz aberatsa, baña oldez, otseñez, jauregiz eta txindiz be.

Baña gauza baten utsa uaftuten eban: osasunik ezeukan.

Eta ori zala-ta, osasun-egari ixaten zan. Eta osasundun aurpegi gofiren bat ikusten eban bakotxian, bekaitzez efeta geratuten zan.

Egun baten, bakaldun bekaizti aren bakaldefira, ufunetako Azti jakintsu bat eldu zan. Eta bakaldunak bere jauregira defu eban, eta osatu egijala, esan.

Aztija'k, (maguak) bayetz erantzun eutsan. Eta alantxe erantzun be egin biaf, bestelan galduta guan-eta. Il -egingo eban, ba, ta txakufei jaten emon. Eta zafen-zafez Matusalen añako zafa zan aztija, ondiño bixi egin gura zan.

* * *

Azti osatzalia, bakaldun - jauregitik urten zanian, mendirantz igitu zan, eta basamortubak-ziaf lekaruetarantz-egin, bakaftade aretatik ortze oztiñera begiratubaz, bakaldun-gexuaren osakaya ortzeko ixafetan ikusteko.

Bitartian, bakalduna, osasun-egarijak igituta, geznarijak bidaltzen asi yakan. Eta bakaldun-geznarijak egunoro ikeftuten eben.

Geznarijak, Aztija'ri, osasun-izpafak eskatuten eutsoezan, eta bide batez, bakaldunaren urduritasuna agertu.

Aztija'k, osakavak idoroteko, asti geyago eskatzen eban, osakai areik idorotia gatxa be gatxa zala-ta.

Egun baten, baña, osakai-bila lekaroratu ixan yakazan geznarijen eskabidiak jasan ezinda, eurakin uriratu zan, eta bakaldunaren aufera aurkeztu.

Bakaldunaren oñetan auzpeztu zan, eta esateko eukatsaia esaten asi:

—"Aguf, bakaldun—esan eutsan— Zuk eskatu egin zeustan, eta nik bayetz erantzun. Zure eskarija aseta dago, ta nire abintzea betetuta. Eskatu zeustan osasuna dakaftzut. Eta nik dakaftzudan osasuna, Idra jaungo -ixunak jabongo al-dautzu. Zu osasunduko zatuzan osakaya zeure jopuetan dago: zeure-menpe dozun jopu-odolaz eztitu biaf zara. Ofetarako jopurik senduena ta osasuntsubena autetsi biaf dozu. Ekafi egixu, ba, ta beriala odol -ustuko dot, eta aren odolaz zeu eztitu. Jopu-odol sendo arek, zure odol gexua ta indafgia, beriala ayenatuko dau, ta odol gafdena ta osasuntsuba aren lekuban indaftsutuko da."

* * *

Osasuna baño besterik biaf ezeban bakaldun aberatsa, Azti osatzale jakintsubaren itzaldija entzunda, pozaren pozez zoratu biafian geratu zan.

Bakaldefiko jopurik senduena ta osasuntsubenaren bila urten ziran. Jopua idoro eben, bata bakaldun-aufera eruan be. Eta Aztija'k, jopuari, sendo ta osasuntsu eretxi be-ta, odol gafden-gafdena atara eutsan, eta bakaldunaren soin-zana zuletubaz, andixik jopu-odolaz eztituta imiñi.

Bakalduna pozik geratu zan.

Eta zori aldintsu a sortu eutsan Aztija'ri, bezuzak-bezuz emon eutsazan. Eta bezuzok aftu-ondoren, Persia'ko tufaldietara ufundu zan. Bakafti-zalia zan, ba, Aztija.

Eta lekaruan be, bere Azti-oldozkunak baño beste lagunik ezeban ixan.

Persia'ko lekaroetan be, baña, bakaldunaren geznarijak, idoro-egin ixan eben, eta euren jaunak dei-egiten eutsala, bai, ta bakaldun-jauregira jatsi zedijala, esan.

Eta Azti efukafijak, bila juan yakezan geznarijakin bakaldun-aufera juateko, lekaro-gentzea laga biafa ixan eban.

Bakaldunaren aufera eldu zanian eta bakaldun - bekozkua ikusi, bakaldun asafia be ezagutu eban, eta bai arek bilduf galanta emon be.

—"¡Azti txakuftzaf ori!—bakaldunak didafka iraindu eban—: osasuna, gastetasuna, indafa ta bizkoftasuna be, gustijak emon eustakazan, baña bai jopu-odolaz nastau be. Eta orain—jafatu eban—, orain jopu-odoldun biuftu nok, jopu astakilo ezeskafi baten neufira jatsita imiñi...

Beraz, jopu-ixatia emon daustak, eta bakaldun-ixatetik bilo!stu. Ni jakintsuba ixan nintzuan, eta orain jakingia nok-jafatu eban bakaldunak—. Eguzkija bera baxen argija ta garbija nintzuan, eta orain gaurik baltzena baño ilunagua nok, eta itxusijagua be bai. Ik, kendu eustakan odola, bakaldun -odol aldintsuba ixan zuan. Eta ordez emon eustakana, jopu-odola.

Niri kendu eustakan odolak, jakituntu egiten nindukan. Ordez emon eustakanak, ostera, jakingetu egiten nayok. Osakai ezeskafi a nok asmaurikua ixan zuan esan biaf daustak, asmatzale gaizto a, efotafi bat idunetik eskegita ibaira botateko. Eu ixan ezpa -intzuan, nor ixan zuan esan egistak, bai, ta nire asafia aren ganera jausiko dok. Eta iri, efotafija idunetik eskegitiaren ordez, miña atarako dauat, eta geyago itzik oguzteko gauza ezazala imiñi."

* * *

Azti gaxuak, bakaldun-zemayetatik gaizkatuko ba-zan, gaizkatu, Idra jaungo-ixunaren ixena atatu bifa ixan eban, aregandik jatsi ixan yakan goi-argi-bidez zuzenduriko osakaya ixan zala, bakaldunari zin-egiteko.

Aztija'ren erantzun arek, bakaldun -asafia sutsubagotuta imiñi eban, baño; Idra jaungo-ixunaren aufka jagi zan, eta ezetariko lotsa barik bere jaungua itz gogofakaz iraindu ta zemaduten.

Eta ¿zer jazo zan? Bakaldun-zemayak, Idra jaungo-ixuna, asafatu egin eben, eta lotsa bako bakaldunaren bizkafa zigoftuten imiñi.

—"Eure jaungua beste gauza gustijen ganetik mafetuko dok—Idra'ren abotsak trumoi-antzo asafe bixiz esan eutsan—, eta bere ixen deuna, lotsa ta itzalez guftu."

Idra ixildu zan. Bakaldunak begijak zabaldu ebazan. Igitu-egin gura ixan zan, eta bai igitu be. Beraz, bixi zan. ¿Baña, zelan? Sugertzaf edendun itxusi biuftuta. ¡A lango zigorik! Eta zigof ori, inditafak, Idra'ren zigofa detuten dautsoe.

IBON.

# Akelar-Dantza Nagusia Marquina'n

Lagun batek bialduta Markina uriko jaien egitaraua artu eta irakuri dot. Tamalez aurten ezingo naz juan uri polit artara, baña egitarauari buruz zer edo zer ementxe idaztea otu jat. Egitaraua euzkeraz eta erderaz polito idatzita dago. Baña bafuan euzko-mamin gitxi dauka. Bada an atzefitar jaia. Noiz gure efietako agintariak euzko-jaiak eralduten asiko ete dira?

Egitarauan an azker-aldian Akelar ndantza nagusia iragafita ikusi dogu, eta izki aundiakaz iragafita be, eta ofexek min emon daust. Nik eztakit irakurleak Akelar-Dantzea Markina'n zeri esaten dautsen dakien, ala ez. Baña neuk egin dodana, eginda laster jakingo dabe. Begiratu erderazko atalera eta an aurkituko dabe "verbena" esan nai dabela.

Izen ori polito jafia dagoala uste dot. Zer da verbena ori? Verbena'ra juaten dira gizonezko eta andrazkoak geyenak beintzat polito edanda, eta utzunerik gelditu bada an orniduten ei dabe. Andrazkoak eurak be agotik alako patar usaña botaten ei dabe, askok beintzat. Gero andrazkoak eurak be pumau egiten ei dabe. Gero alkafi ondo eldu ta jausi eztaitezan sofiu otzean batera eta bestera dantzan ibili oñak asko jaso barik, eta... gero gerokoak. Lotsa askoko emakumeak olako tokira ez dira juaten...

Akalar-Dantzea be olako gauza bat ei zan: Lafeko euzko-idazleak bein esaten ebanez, eta berea da izen ori, akelafak ondo edanda gero dantzan gabaz goizera arte egoten ziranean, akelar dantzan ibilten zirala esaten zan. Beraz or verbenetan edan, dantzan, eta... ibilten diranak akelar dantzaketan eder to ibilten dira. Beraz izen ori ondo ipini leio jai atzeritar oferi.

Eta neuretzako oldozten asi naz. ¿Eta Markina'n akelar asko ete dago? Lotzagafia da olako uri euzkotar baten ain jai atzefitafa eraldutea. Jai ori eralduten dabenak eztabe asko Euzkadi maite, bestela eleuke atzefitar euzko-arerio dan olako jairik eralduko. Nire ustez Markina'ko abertzaleak eztira akelar dantza ortara juango, bestela euren izenak berarizko idazti baten ipini bear litzatekez, gero aldia dafenean kontuan eukiteko. Olako jaietara juan eta olako jaietan jolastuten diranak abertzaleak barik abefi arerioak diralako.

Sabin gure irakaslari maiteari-ia akelar dantza ofara abertzalerik juan ete leiken, itandu ba'leutse-zer erantzungo ete eban?

Ni gazte nintzala olakorik etzan ezagututen, baña efomeri ondoren neskatilen ondoren juaten ziran mutilak gaitik akelafera juaten zirala esaten zan. Gaur be beste ofenbeste jaso leike. Askok ezin ibili leikez ortik zear, neska-ondoren, eta olako jaietan aguretuta gero be azke izaten da gazte lez ibiltea. Ofek sasoia pasautako ule erdi urdindudunak benetako akelafak dira, edo bear bada akefak, onek erderaz itz gaiztoa euki afen.

UPOTAFA.

Uafa.—Gabeko jolas-era oferi geuk be itxusi deritxagu, akefi-ixenari berari baxen itxusi. Guri itxusi yakuna, biafba, "Gaytan" jaunari, begiko ixango yako, bafa aren eskumatik dabiltzanai be. Eta onenian, "katolikuen" egin biafak ofetaraxe onduen betetan dirala esango dabe.—I.

Euskeltzaleen Orratza
Saltzalientzat
Lko. BAT
Saneurri berezia'
AKETA ITXIALE
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

# Mendizale bakartzalearena

Mendira ni goiz-goizetik,
Lagunak beti itaunez:
—Egunero nire etxetik
Bakafik nola noyanez!
Lagunik bai-da ugari:
Lore polit, txori abeslari,
Aize bigun, geriza-eguzki,
Efekatxoak kantari!
Zoloak, zurizka etxeak,
Oioak, egaka usoak,
Atian amama-umeak!
Artzaiñak, ardi-taldeak!
Mendijan dan bizitasuna!
Mendija dan alaia!
Zefgafik ba nik beafko
Mendirako 'aguna?
Burdi-bide ta zidofak,
Basez arek, oneik legofak,
Tontofak eta bafenak,
Lana ta osasuna,
Areitz, pago ta 'erdenak!
Bakea ta zoruna
Ganez-gan mendi-usaña,
Ez al-da olan, artzaña?
Mendijan dan bizitasuna!
Mendija dan alaia!
Zoztofa da, nire ustez,
Mendirako laguna!

ONDARTZAPE.

Mundaka'n.

# Idazti agiria

""Lauaxeta" jaunari.

Bilbao'n.

Aguf:

Idazki onez lagunduta bidaltzen dautzut, bear danentz beteta, EUZKADI 'ko euzkel atalean argitaldu dozun "Euzkel-Idazti - Alde,'entzat laguntza aurkituteko "Arpidedun agiria".

"Erletxue,'ren idazlanari ipiñi dozun uafa oldozkor itxi nau. Zuen itz mingotzak ukutu nabe biotzian. ¿Egia ixango da gero, zeuk diñozunez, euzkeldunak eztabela maitatzen geure abendaren elia geure euzkera zafa? Eztakit ba ori egija danik... Baña niri ta neu lako euzkeldun-bafi askori oldozkun itun onek negar egiteko gogua emoten dauskula esan neizu. ¡Ainbeste neke ta ainbeste amesak geure euzkera maitia ikasteko ta orain, zifiboro ba-da be, erabilten ikasi dogunian, euzkaldun jatofak eurak, euzkera baztertuten eta ezetarako gauza ezpai litzan, amilera jaurtiten ikusi!

Ezin dogu ziñistu euzkeldun-bafijok negargafizko bafi ori! Zelan ainbeste eunkietan geure asabeak euren amesak eta beafixanak ain ederto azaldu ixan al-eben ele maitian, gaurko euzkeldunak ezin dabe jafaitu euren artu-emonak egiten? ¡Au negargafija! Zugatz zar bat lez ustelduten asi da euzkerea.. edo gu gara ustelduten asi garanok atzefitar buztafipian?

Zeuk diñozu izpafingijetan eta itzaldijetan diñozuezan "tentelkerijak" zeure buruba atzipetuteko egiñak baño eztirala. ¿Egitan uste dozu ori? Neuk eta neu lako euzkeldun-bafi asko dagoz, zuben "tentelkerijakaitik" geure abefijaren izkerea ikasten asi dogula. Badakit euzkeldun-bafi batzuk gitxi gora bera eztala gaizkatuko geure abefija, atzefitaren buztafipian lotuta jafaituten dan bitartian iñoz ezta gaizkatuko-ta. Baña itz oneikaz esan nai dautzut zuben eguneroko lan neketsua eztala alpefiko lana. Geu, euzkeldun -bafijok beintzat gafantzi andikotzat artzen dogu.

Ez adoria galdu euzkel-idazle maitiak. Erakutsi bear dogu ludijari burdiñezko kemendun endakuak garala. Gitxi garala oindiño? Geu baño laguntza gitxiago eukan Sabin'ak abefi-azkatasunaren azija ereiten asi ebanian. Eta ez aiztu "Euzkel-Idazti-Alde,,'tzat laguntza geyago aurkitu nai ba'dozue, zeozer erderaz be idazten.

Agindu beti JEL'pian.

Añabeitia'taf B.

# Antiguo'ko Poxpolinak

Igarotako igandean egin zuten ibilialdi edef bat Donosti'ko auzo jator ontako poxpo'iñak. Etxalare'ra, Napafoa'ko efi jatof aretara. Goizeko zortzietan atera ziran Batzoki aufetik iru berebil aundi bete-beteak. Uraxe bai zala gauza edefa, jendea ugari bazan ikusten. Bederatzi ta erdietan iritxi zfran Etxalare'ra, amafetan abestu zuten jaupa nagusia, mutilak abestokitik eta neskak betik, bai ederki abestu zutela, abots edefak bai baitira gaste olen artean.

Meza ondoren neskak egintzuten (Euzkotar gimnasia) eta mutilak ezpatadantza; ondoren otoruntza.

Afatsaldean, juan ziran Usotokieta 'ra, bertatik ederki ikusten da Saara, Lapurdi'ko efi jatof ura, efi artantxe egiten zituzten beren Batzafak denbora batean gane Franzi'ko lateri ofen mende arkitzen diran euzkotafak, ondoren jetxi ziran befiz Etxalare'ra. Gero egin zuen dantza saioa edefa, ikufin-dantza, lauburu - dantza, zozo -dantza. ezpatadantza eta abar. Txalo asko jo zien gure poxpoliñari.

ERIOTZA.—Igaro dan astelenean il-tzan Bujanda'ta. Portunata abertzale jatofa, notintza aundia izantzan bere ifetan eta gorputza eramatian ilobira.

Nere samin agufa bere sendi guztiari; ta, zuri irakufle, aitagure bat eskatzen zaizu bere gogoaren alde (G. B.)

ERGOIENA.

# Euzkotar Umien Aldez

## Sendikeriak (1)

"Ezerezkeri batzuek dirudite begiratu batean; baña ai, ene! euren bafuan etorkizuneko negaf askoren urjayotza daramate."—Padre Aguilera S. J.

(Seaskatik ikastolaraño.)

Erdaldunen artean sendikeria guztiz sartua zegoala esan nuan nere aufeko idaztian, eta neska mutilen artean batez ere nabarmenkeri aundiak sortzen dituala.

Gurasoen eta umeen artean berdin ikusten da. Sendi txiroen befirik ez dakit, baña erdiko ta goiko maletako sendietan gertatzen dana bai. Senafak emazteari Chuchi deitzen dio emazteak senafari Polo, efañak amagiafebari Concha umeak alkafi Titi, Cheche, Fifi... eta nik ezagutzen detan zazpi urtedun neskatxo batek bere amari batzuetan Chata, beste batzuetan Fea, eta beste batzuetan Pe'oncita deitzen dio.

Egun batean bere amari galdetu egin nion ia zer zan umeak berari izen oyekin deitzea eta erantzun ziran umeak zion maitetasunaren igali bat zala ori. Ez nuala ulertzen esan nion, "ama" edo "amatxo" deitzeak baño "Sudurmotz" "Ilemotz" eta ofelako izenakin deitzeak maitetasun aundiagoa erakutzi zezakeanik, eta alegiñak egin zituan afen len ainbestean gelditu nintzan ni beintzat.

Onelako sendikeriak ezin gentzakez ontzat artu. Bai dira gurasoak (bere alabatxoak "Sudurmotz" deitzen dion nere ezagun ori bat) ofe'ako gauzak gurasoen eta umien arteko ufitasuna laburtuaz berdintasuna eta berdintasunarekin maitetasuna sortu ta geitutzen dutela uste dutenak. Egia esateko ez dakit ala uste duten, esan ofela esaten dute.

Benetan berarizko betaufeak beaf dira gauza batzuek ikusten diran bezela ikusteko. Guraso batzuek ordea ain pozik erabili oi dituzte onelako betaufeak!

Sendikeri abetatik sortzen da, geroago umeak gurasoakin eztabaidak eukitzea eta umeak berenari gogof eultzitzea.

Onelako umeak gogof ekiten diote gurasoak iñoiz ikasi ez dituzten gayetzaz eztabaidan, amakin batez ere, eta al duten guztian amari bere ezjakiña arpegira botiaz era onetara:

—Amak, bai aldakizu Tirol nun dagoan?

—Nik ez, ume.

—Zuk ez dakizu ezer ere, ama. Zu bigaren malako ikasto!ara asterketak egitera juango ba'ziñake, kale eramango zenduke.

—Bai, ene seme, ori gauza jakiña—dio amak, semearen jakinduriaz aoa zabal-zabalik duala.

Urte asko baño len esango dio umeonek bere amari edozefien aufean:

—Ixilik egon zaite ama, zuk ezer ere ez dakizu ta.

Semeak dakian baño asko geyago ba'leki ere, eta amak dakian baño gutxiago oraindik, baldin seme ofek aziera ona izan ba'lu ez zion amari ofelako gauzarik esango ez iñoren aufean ez bakafik dagoanean.

Izan leikean gauzarik txafenetakoa da semeak eta alabak euren gurasoai izketan ari diranean aurka egitea naiz ta gurasoak okef egon. Ondo azitako ume batek ezin leike onelakorik egin.

Aitak baño semeak geyago jakitea ez da afitzeko gauza bidezko gauza bat baizik. Ori, besteak esan zuan bezela gurasoak baño geroago semeak jayotzen diran bitartean beti ikusiko dan gauza da.

Beste gauza bat ere gertatzen da. Aitak baño semeak geyago ba'daki, aitak efementarintzan, arotzerintzan edo dana dala lanean izerdia atereaz ira-bazitako diruakin ikastaroak ordaindu dizkiolako izan oi da askotan beintzat.

Izan leikean gauza da baldin seme jakintsu ofek aitak baño asti geyago izan ez ba'zuan liburuetan emateko aitak afia ere ez jakitea.

ARITOKIETA.

(1) Itz onekin erderazko familiaridades adierazo nai nuke.

# Errijetatik

LEXONA'TIK

TXORI-ERI'KO JAYA.—Irakufi dogu zer diñauskuben Erandio'ko goi eta be aldeko Dañobeitia eta Mugara abeftzale zintzo bijak, Txori-efiko jayak dirala bide. Eta geu lexonatafak bere emen gagoz gertu geure aldetik Derio 'ra ozte andija jo arteko, zergatik geu bere zorpean gagoz efi onetako abeftzaliakaz, geure efijan jai au egin zanik ona.

Ikusi dogu egitaraba bere eta oso begikua yaku, baña ainbat atsegingafijago egingo leteke zeozer egingo ba 'litzake geure ele euzkera aldez-eta ez uste ixan Derio'ko abertzaliak, zubon lana txaftzat aftu dogula, zegafi ze ezarie zubok bakafik oien efudun, ez dogu, ikusten beste jai batzuetan bere euzkera aldezko lan andirik-eta. ¿Zenbat dira iragafi diran euzko-jayak zeinetan euzkera aldezko txapelketan egin diranak?

Dagoz euzko-jai baten, pelota txapelketa; kirolak ugari, orain txifingularijak gustijetan-eta ¿zergatik ez, ba, gastetxuentzat txapelketa bat euzkeraz irakufi eta idatziten eta edestijatzaz eta abaf eta abaf, sari begikuak ezafita zeinen bitaftez zabalduko litzateken zaletasuna eta beraz biar dan mafetasuna gixadi bafi baten aldetik?

¿Noz elduko da geure euzkera matiaren eguna? ¿Ez dogu abeftzaliak geure tantatxuba bere aldez ipiñiko?

Auxe, da, ba, nik nai dodana; benetako abeftzaliak ba-gara geure ezaugafi andijenari omena egin eta au, iñoiz bere ez obeto, euzkotafak alkafegaz batzaf andi bat egiten dogunian baño.

Gertu gagoz, ba, Lexona'ko abeftzaliak datofen igandian txorieftiri ikef aldi bat egiteko eta anatasunian ordu batzuk igaroteko, eta onetarako (J. l.) tafantak ixango doguz biaf doguzan gustijak, baña biaf dogu len bai len joateko asmua daukonak bere ixen abixenak emotia geure Lexona'taf Batzokija'n edo bazkuna onetako arteztari batzakuari. Eta au larunbata gaba orduko ze gero berandu ixango da, Urteyerako ordubak, Batzokija'n bertan iragafiko dira, baña bat ixango da, afatsaldeko 3'retan eta geyago biaf bada ordu onetan, ikusiko dogu erea beste bat bere ipiñi egiteko.

¡Lexona'ko abeftzalak! Gertu, ba, eta danok igandian Derio'ra egun ala! bat igaro nai ba'dozube, eta gero emen, benetako abeftzaliak gerala erakutsi. ¡Gora Txori-efi! ¡Gora Euzkadi!

EMETAFE.

MUXIKA

ARANTZAZU'RAKO BIDEZKUNDIA.—Ila onen 12'an, igazi dan igandian, irakufle, efi onetatik notiñak-notin Arantzazu'ko Ama Neskutza ikeftuten juan ziran.

Eftxadondafak, euren txaunburuba dan Zalo-Etxebafia'taf Kepa buru ebela juan ziran. Ariatzafak, ostera, Zamaloa'taf Keperin jauparija zaindari ebela.

Arantzazu'ko txonitza, Zalo-Etxebafia'taf Kepa'k oguzi ixan eban.

Eta muxikafak, euren txaunburu jaunaren txonitza entzun-ondoren pozik be pozik etxeratu ziran, eta ganera, ufenguan juateko gogua galdu barik.

IKEFTALDIJA.—Igazi dan astian, San Salvador del Valle deritxon efiko Euzko-Ikastolaetako ikasletxubak, euren guraso ta irakasliakin etofi yakuzan, eta bai guk pozik agufu be.

Sukafieta'ra juateko asmoz urten zira'a esan euskuben, eta Sukafieta'n Sabin Irakaslia'ren ilobija ikeftu eta aren gogo-aldez otoi-egiten joyezala.

Muxika'ra eldu ziranian, baña, ta "Txindof Zafa" bixi dan kabi-ingurura eldu, txindof-abija zafa ikusteko gurarija sortu ei-yaken. Eta sortu ixan yaken gurarijak, ikeftu gura ixan eben lekura eruan ebezan.

Ikeflarijoik, larogei-inguru ixango ziran. Pozik aftu genduzan, eta ondo -etofija emon be bai.

DABILTZANAK.— Apraiz'taf Miren eta Ugalde'taf Nere neskatotxubak, Gernika'ra juan ziran. Ondo ibili, ba, ta kistaf zintzuak ixatiari ez laga.

Artabe'taf Josutxu, egun batzubetarako Bilbao'tik etofita emen aurkitzen da. Zamaloa'taf Keperin, Ariatza'ko jauparija, gogoiñarkunak egiten juan da. Ondo ibili.

TXINDOF-KUMIA.

DURANGO

SOMOFOSTRO'RA. — Somofostro'n igandean ospatu ziran Euzko-Abeftzale -Jairá ainbat aberkide joan ziran uri onetatik (baña tamalez biardan beste ez). Guk zofa erantzun beafa euki dogu gure Enkartasiñoko aberkide ainbeste oñasi, ta atsekabe igaro daben Aberkide onekaz, eta azketsi. Bertora eldu giñan aberkideak ikaraturik gelditu giñan ikusirik ango alaitasun anaitasun, eta ozte amaibagea eta gorengo izlariak egonik euren itzakaz nire biotza erdibitu ta negar malkuak urtetan eben begietatik. ¡Gora abertzale Enkartaduak!

EA'RA—Gure aberkide begiko diran Txakartegi'taf Efaimunda, ta Benedito'taf Anastasi ta sendia udaldia igaroten, joan ziran euren olo lufera. Ondo ibiltia opa dautsegu lagun maiteori, eta zuk Efaimunda urten daizula igezko antzera mus garaile ta arin biurtu gure ondora, ze Oleaga'taf Telespor emen dago gertu zazpi enbido joteko ta...

MUGARA'RA. — Uri onetako Euzko kiroltzaleak larunbat gaberako igon eben aldra batek gaba igaro, ta bai igandia be. "Afanoa" Atxera (Anbo-

# Begoña

Ene irakufle matiok: Emen zu zube bafiro. Aspaldijon eztot ezer tzi geure efiko gayetaz, astija uf dagokidalako. Baña gauf, igun gafantzitsu bat daukot bai, ta es natof berandu ezpa-da.

¿Eztozube-ete entzun ixan Idazti-Alde zer dan? Zubeitariko tzuk dakixubelata nago; baña ta beste batzuk ori zer dan eztakije Euzkel-Idazti-Alde, bazkun edo dade bat da, euzkel-idaztijak ar duteko bere lepuan zeregiña bazkuna. Au egikoya ixateko bazkide batu biaf-dira, ta onein biafa bakaf-bakafik ixango da rik bat argitalduten danian ijek tomo bat erosi. Baña ez-uste edo karua ixango dala. ez; liburu bakotxaren saneufija ziua, laufleko bi baño geyagorik ixango, ta ganera ila bitik be ufengo dira.

Ba-dakusube onen bidez, gustiz gafantziduna dala, gure kintzea edo literaturea oso atz dagolako oindiño, ta bazkun onen ru aztuna orixe da, ba, euzkel jak zabaldutia, ta geuk euzkel eztogu lagunduko, ba? Neuk neuke poz-pozez Begoña'ko nok afpidedun-agirija betetuko la, euzkel zintzuak ba-dagoz-ta.

GASTETXUBEN IBILALDIJA.— onen 21'afen egunian gastetegingo dabe urterako ibilaldija. ña'tik ufengo dira goxeko zoftz Durango, Ermua, Eibar, Azpeitia, koitia ta Loyola'tik juango dira onetan bazkaldu, ta ondoren Deba emendik itzulaldija asi Begoña'ra teko afatsaldeko zoftziren ingu

¡Au ibilaldi edefa! Gure gu matiok egun alaitsuba eukiko da tofen asteaftean, baña ez lo-egin -da, gufdibila juango yatzube, t ro...

MUS-TXAPELKETEA.— Euzk tedijan eratu zan mus-txapelket -dua aufarantz, baña oindikafen -leteke esan, txapeldunak nortzuk go diran, bidian afisko asko da

Ufengo afte.

IGETU

# Irakurri EUZKA

to) mendigoxale asko joaten da dero, Gorostiza'taf Kerneli a onak, naiko zeregin dauko ondo emon ta etxea erakutsi, eta as tekoak egiten lagun egin... on ba mutila Korneli¡ Janariak itxi egin bear yako kunplidue akusteko, onez eta pozik biurtu ño bertora doazenak.

EZKONTZA DEIAK. — Ig amaitu ziran ezkon deiak Gar Josu eta Gomuzio'taf Miren Ko Zabalafa auzokoagaz aufez urte tan iraun dagizuela bizitza zori

¿Nor ezkontzen da? Aldi gu fu iragafiko dodaz, emen bideak dabixen neska mutilen ixenak, ezin leike declarazifiorik egin, tzaleak diranak dabiltzezalako politika batekoakaz, eta pelig

IÑAKI DEUNA.—Bilbo'n egu tan Euzko-Alderdi-Jeltzaleak o dabezan jai aberkoiak gafantzi Onetarako Uri onetako abesbat aro ikasten diardu, afen egite abeslari gustiari datozala ikasta tara alde artu, eta gafantzi an onek ondo urten dagien, eta eg tan beti letz Uri onetako aber erakutsi bear dogu gure etxeko luak apainduten euzko-margodu lakaz. Egun onetan gutxienez bear da jaupa, abesturik Aran 'taf Sabin'en izkiagaz. "Iñaki guak bialdua" ta abaf, eta a dean Bilbo'ra. Gure Abefiak u eta lafionetan arkitzen dan le tiok batu beaf gara maitetazun kofengaz.

SORKU

ZEANURI

Igande ta jayetan a'ayago ln geunke kanpo-txoriak be etofi zan-ezkero, Batzoki'ko aretoa, gastek izan daigun bafiketalde go zeri eragin aldi onetan; e tzaletasuna berotu beafa, entr guzan izpafak geroago sendoag Euzkadi'tzaz batasunean lotu Erdu, ba, Batzoki'ra. atezk teok.

LENENGO JAUNARTZEA.— etxe eta Otzamiz'taf Jon'ak ef Zubiate'ko etxe-txadontxuan K Ama'ren egunean, bere gurso nidez jai samufari goraldoaz.

Zorionak gurasota senide tez be jaunaftzale bafiari.

MENDIGOXALEAK.—Igande afatsaldeko ordubietan izango d tzafa Batzokian. Aftuko dira giak gafantzitsuak izango dira be ez utsik egin. Zeanuri'ko m tof eta baserietan euran lotu gun izango dala dirauskue. ¡Ig al da!

OTZERIN